

## 1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresa bezalako gutxi daude inguruan, hondakin organikoa batuz eta hau erabiliz produktu osasuntsuak (fruitu eta barazki ekologikoak) ekoitziko baititugu. Horrez gain, guk egindako konposta soberakina inguruko baserriarrei oso merke salduko diegu.

Guk ekoiztutako jakiak ezaugarri kualitatiboak izango ditu nagusi; hau da, kalitatea izango da honen bereizgarri, produktu kimikorik gabe produzituak izango baitira.

Esan bezala, lehiakideengandik bereizten gaituzten ezaugarriak honakoak dira:

- Berritasuna: inguruan ez da hondakin organikoa batzen duen enpresarik.
- Eskuragarritasuna: herriko merkatuan salduko dugu, baita gure baserrira zuzenean etorri ahal izango dira bezeroak produktua erostera.
- Prezioa: ez da bereziki garestia izango produktu ekologikoa eta bertakoa dela kontuan izanik.

